


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduera %4,3 hazi zen 2005eko apirilean

2005eko lehenengo lauhilabeteko bilakaerak aurreko urteko aldi berberaren aldean %0,8ko hazkundera izan zuen

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2004ko apirilarekin erkatuta %4,3 hazi zen 2005eko apirilean. Urteko lehenengo lau hilabeteak aintzat hartuta, industri jarduerak aurreko urteko aldi berean baino %0,8 gehiago hazi ziren.

2005eko apirilean, aurreko hilabetearen aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa hiruhilabete arteko %2,9ko tasarekin igo zen estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean; horrela, lehenengo hiruhilekoaren hileko erregistroak azeleratu egin ziren.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen
urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabetea**



(*) 2005eko apirileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2005eko apirileko indizearen bilakaera hazi egin da sektore guztietan, 2004ko otsailarekin erkatuta. Kontsumo-ondasunak %6,8 hazi ziren, kontsumo-ondasun iraunkorrek eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrek ere hazi egin zirelako (%7,3 eta %6,6, hurrenez hurren). Ekipamenduko ondasunak %5,6ko urte arteko tasarekin hazi ziren, Tarteko ondasunak %2,9rekin eta Energia %3,6rekin.

2005eko lehenengo lauhilabeteen Ekipamenduko ondasunak %3,8 hazi ziren; Tarteko ondasunek ez zuten gorabeherarik izan (%0,0); Energiak %1,6 egin zuen behera.

Kontsumo-ondasunak ere %1,2 jaitsi ziren, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%-1,4) eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (%-1,1) behera egin zutelako. Datu hauek guztiak, betiere, 2004ko lehenengo lauhilabetekoarekin alderatuta daude.

2005eko apirilean, eta 2005eko martxoarekin erkatuta, hil arteko aldaketa positiboa izan zen sektore guztietan; salbuespena Ekipamenduko ondasunen sektorea izan zen %0,3 jaitsi baitzen. Kontsumo-ondasunek hil arteko %7,5eko igoera izan zuten; hauen artean, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %8,0 hazi ziren aurreko hilabetearekiko eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %7,2. Tarteko ondasunak %1,7 gehitu ziren eta Energia %10,2.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde Historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak goranzkoak izan ziren lurralde guztietan; izan ere, Araban %1,5 hazi zen, Bizkaian %5,2 eta Gipuzkoan %5,1. Lauhilabeteko metatuan Arabak %1,8 egin zuen behera baina Bizkaiak eta Gipuzkoak tasa positiboekin jarraitu zuten: Bizkaiak %1,4koa eta Gipuzkoak %1,5ekoa.

2005eko apirilean, eta 2005eko martxoarekin alderatuta, hil arteko hazkunde-tasek ere bilakaera positiboa izan zuten: Araban %3,2 hazi zen, Bizkaian %3,3 eta Gipuzkoan %2,2.

**Taula: 2005EKO APIRILA. Euskal Autonomia Erkidegoko
Industri Produkzio Indizearen aldaketa-tasak (%)**

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	api05/api04	At/At-1 (1)	api05/mar05	mar05/ots05
Indize orokorra: Euskal AE	4,3	0,8	2,9	-0,2
Araba	1,5	-1,8	3,2	4,6
Bizkaia	5,2	1,4	3,3	-1,8
Gipuzkoa	5,1	1,5	2,2	-0,9
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	6,8	-1,2	7,5	-1,2
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	7,3	-1,4	8,0	-5,7
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	6,6	-1,1	7,2	1,2
Ekipo-ondasunak	5,6	3,8	-0,3	3,8
Bitarteko ondasunak	2,9	0,0	1,7	-0,5
Energia	3,6	-1,6	10,2	-6,5

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp